

BALIO PROPOSAMENA

Argi dago hainbat enpresek energia eskaintzen diotela kontsumitzaileei. Makina bat enpresa daude zerbitzu hau eskaintzen, eta, beraz, hainbat aukera ezberdin dituzte bezeroek, prezio ezberdinak, baldintza desberdinetan... Aitzitik, gure enpresak, energia eskuragarri jartzeaz gain, beste hainbat jarduera ere egiten ditu. Hala nola, energia berriztagarria sortu, gure ingurunea kutsatzen duten hondakinei erabilera on bat emanez, eta, modu berean, gure planeta suntzitzen dituzten soberakinak aprobetxatuz. Honetaz aparte, gure prezioak nahiko baxuak izango dira; izan ere, gure enpresaren xedeetako bat zailtasun ekonomikoak dituzten familiak laguntzea da. Hortaz, esan genezake gure enpresa gizartea laguntzera eta gure ingurunea zaintzera bideratuta dagoela, eta hau da batez ere gure lehiakideengandik bereizten gaituena. Argi utzi beharko litzateke, egiten ditugun jarduera guztiak guztiz seguruak eta onuragarriak direla, bai langileentzat bai ingurunearentzat. Hondakinak energia bilakatzeko erabiliko dugun prozesua guztiz ikertuta eta frogatuta dago, eta ez du inolako arriskurik.

